

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko otsailaren 3a. VIII. urtea. 2.168. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Futbolaren goi mailan dabilta eskualdeko hemeretzi jokalarari

Tolosaldeko eta Leitzaldeko kirolarietako batzuk Euskal Herriko 2.B mailan daude, beste batzuk hirugarren mailako taldeetan eta badaude ere etxetik urruti daudenak

Lehen eta Bigarren mailetara iristea «oso zaila» dela diote kirola afizio eta zenbaitetan ofizio duten gazteek, baina lana erruz egiten dute bidean zailtasunak izan arren **o6-7**



Sail desberdinetako arduradunek hartu zuten parte departamendu berriaren balorazioa egiteko prentsaurrekoan. A. IMAZ

Herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du Ibarako ezker abertzaleak

Herri programa «behar bezala osatu ahal izateko denon partaidetza» beharrezkoa dela dio **o2**



Herritarrek ere parte hartu zuten prentsaurrekoan. M. UGARTEMENDIA

Kantu hotsak nagusituko dira Agate Deuna bezperan

Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan bihar aterako dira koplak abestera **o4**

Transbertsalitatea garatzen

Urte bete igaro da Tolosako Udalak 'TIs bat' departamendua sortu zuenetik; bost sailen arteko lotura lanak egiten ditu eta udal ordezkariak «gustura» daude izandako emaitzekin **o3**

Villabonako HEZKUNTZA PUBLIKOA

Euskalduna, Denona eta Denontzat
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua

Matrikulazio epea:

Urtarrilaren 31tik
Otsailaren 11ra

Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691 413
012277aa@hezkuntza.net

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel./Faxa: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Sagardo naturala
Eguneroko sagardoa

ISASTEGI
sagardotegia

Abadia Toki Asuna 20400 TELLOSA
Tel. 943 602 984 - Fax. 943 605 632
isastegi@isastegi.com
www.isastegi.com

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko programa

Ibarrako ezker abertzaleak herritar guztien ahotsa jasoko duen herri programaren aurkezpena egin du

Gaur egungo errealitatea «errotik aldatu beharraz» ere aritu dira

Erredakzioa Ibarra

Astearte iluntzean prentsaurrekoa eskaini zuen Ibarrako ezker abertzaleak, proposamen berri batekin, *Zure ahotsa, gure hitza* lelopean.

Egungo egoera irauli beharraz

Egungo eredu politiko eta sozioekonomikoa errotik aldatzea «beharrezkoa» dela adierazi zuten, «nazio eta herritar gisa dagozki-

gun eskubideak bermatuko dizkiguten egiturak sortzeko». Gogor kritikatu zituzten, langabeziaren «etengabeko» igoera, enpresetako EREak, lanaren prekarizazioa eta lan istripuen ugartzea, eta era berean, pentsioen murrizketa eta erretiro adinaren luzatzea ere arbuiaitu zituzten.

Egoera «larri» honek ardura-dunak badituela nabarmendu nahi izan zuten, «PSE, EAJ eta UPN sistema neoliberal honen



Ibarrako Ezker Abertzaleak eskaini zuen prentsaurreko une bat. M. UGARTEMENDIA

bultzatzaile eta defendatzaile» direla adieraziz. Horrela bada, «praktika zaharkitu hori» aldatzea herritarren esku utzi zuten, gatazka politikoa gainditzearen alde lan egingo dutela bermatuz.

Herritarren ahotsa jasoz

Ezker abertzaleak udaletan herritarren parte-hartzea bultzatu nahi duela adierazi du prentsau-

rrekoan, euren helburua «Euskal Herria eta herritarrak» baitira. Horretarako, eta aipaturiko «helburu estrategikoak lortzeari begirara», herri programa behar bezala osatzeko abertzale, ezkeriar eta independentisten parte-hartzearen bila dabilzala adierazi zuten: «Herri programa hau denon artean sortzea dugu helburu argi, horretarako ezinbestekoa den herritarren partaidetzarekin».

Ibarrako ezker abertzaleak, beraz, krisiaren arazoa, Euskal Herrian ireki berri den prozesu demokratikoa, benetako aldaketa politikoa, euskaraz mintzatzearen beharra, emakumeen ahotsa entzutea, amalurra babestea, nagusiekin hitz egitea eta gazteenei hitza ematea bezalako auzien inguruko hausnarketa egingo du datozen hilabeteetan herri programa osatzeko.

Irudia Tolosa



GABONETAKO ZOZKETA

Tolosaldea IKT-k zozketa bat antolatu zuen pasa diren Gabonetan. Behin zozketa burututa, urtarrilaren 4ko irabazlea Juan Luis Maiztegui izan zen 2.664 zenbakiarekin. Urtarrilaren 5eko zenbaki saritua berri, 3.654a izan zen, eta Koro Osas Gainzak jaso zuen saria.

Biribilgune berria eraikitzeke lanak Berazubi auzoan

Bost egunen buruan lanak bukatuta izango dira Paper Eskola ondoko biribilgunean

Erredakzioa Tolosa

Aste honetan emango zaie hasiera Berazubi auzoko biribilgune berria eraikitzeke obrei. Azken urte betean, Martin Jose Iraola kalearen amaieran hainbat hesirekin osatu dute biribilgunea, trafikoa modurik egokienean bideratu ahal izateko. Orain ordea, biribilgune berria eraikiko dute. Dena bere bidetik joanez gero, otsailaren 11rako guztia prest izango da.

Gipuzkoa Encounterren izena eman daiteke jada

Aurten bosgarrenez ospatuko da ordenagailu eta teknologia berrien topaketa hau

Erredakzioa Tolosa

Martxoaren 18an zabalduko dituzte ateak Gipuzkoan ospatzen den ordenagailu eta teknologia berrien topaketarik handienak. Urteroko moduan, aurten ere Usabal kiroldegian izango da Gipuzkoa Encounter. Bosgarren urteurrena

ospatzeko, aurtengoan interneteko konexioaren abiadura bikoiztu egingo dute antolatzaileek, sistemari 2000 megako abiadura emanez.

Izen-ematea zabalik

Izen-ematea zabaldu dute jada, eta edizio honetan tolosarrei, eta bereziki neskei, luzatzen diete gonbitea. Parte hartzeko nahikoa izango da www.gipuzkoencounter.org webgunera sartzearekin. Aldez aurretik izena ematen dutenek 32 euro ordainduko dituzte, eta deskontuak izango dituzte beste topaketetan.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Ileapaindegia.** Alegian, ileapaindegi bat alokatzen da. Interesatuek deitu 665 70 82 08 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Egongela osoa.** Bi sofa, hiru mahai, lau aulkik, hiru lanpara eta alfonbra. Guz-

tia berri-berria dago, sofak izan ezik.

Prezioa: 450 euro. Interesatuek deitu 685 73 25 30 telefonora.

■ **Apartamentua.** Jaka erdiguinean, altzariz guziz hornituriko apartamentua salgai, garaje eta trasteroarekin. Interesa duen orok dei dezala 667 49 25 57 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KEY-LAN
Sarraigineza
Nafarroa etorb. 13 behean - TOLOSA
Abuz. 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 83 13



Andoni Iturzaeta, Onintza Lasa, Jokin Bildarratz, Yurre Peñagarikano eta Joselu Andueza. A. IMAZ

‘Tls bat’ departamentuarekin «gustura» agertu dira udal ordezkariak

Udaleko bost sail elkartzen dituen departamentuak urtebeteko bizia du jadanik

Asier Imaz Tolosa

Transbertsalitatea hitz potoloa da, azken boladan hitzetik hortzera ibili dena. Tolosako Udalak, duela urtebete, edukiz betetzeko ahalegina egin zuen, *Tls bat* sortuz. Euskadi mailan egin den «lehen saiakera» honekin, gustura agertu ziren udal ordezkariak herenegun, lehen urtearen balantzea egiterako unean.

Esperientzia berri honek izena *Tls bat* baldin badu, abizenak, transbertsalitateaz gain, hamai-

ka ditu: hartu-eman, parte-hartzea, harremanak eta komunikazioa hobetzea, ... *Tls bat* departamentuak finean, udaleko bost sailen arteko lotura lanak egiten ditu. Urtebeteko bizia duen departamentuaren lehendakaria Jokin Bildarratz alkatea da. Bost sailak berri, hauek dira: Berdintasuna, Partaidetza, Kultura, Gazteria eta Jaiak.

Tls bat-en balantzea egiterako unean, alkateak arduradun politiko eta teknikari guztien arteko «giro ona» azpimarratu zuen, departamentuaren balioa aldarrikatzearekin batera.

Sail bakoitzaren balantzea

Berdintasun Saileko arduradun politikoak, Onintza Lasak, azken urtearen errepasoa egin zuen: «80 emakume berri erakarri ditu-

gu aurten ikastaro, denbora bankua eta garatutako ekintza desberdinekin». 2012 *Tls bat* departamentu osoaren aurrekontuak, genero perspektiba izango duela ere aipatu zuen Lasak.

Aurrera begira aldiz, Andere Nahiaren eredu aldarrikatu zuen: «Enpresa txikiak dituzten emakumeek osatzen dute taldea. Elkarriz lagunduz ateratzen dituzte aurrera beraien enpresa eta bizitzak. Helburua Andere Nahia Tolosan sortzea izango litzateke».

Yurre Peñagarikanoren esanetan, herritarren parte hartzeak udal baten kudeaketa indartzen du. Partaidetza Saileko zinegotziak, azken urte honetan, Amaroako Parte Hartzen, Garbiketa ordenantza eta San Esteban auzoko Parte Hartzearen aipatu zituen, besteak beste.

Kultura eta Jaiak sailak Andoni Iturzaetaren ardurapean aurkitzen dira. Zinegotziak erakusketak, liburutegi edo zine emanaldien inguruko hausnarketa plazaratu zuen. Datuekin oro har «gustura» agertu zen Iturzaeta.

Azkenik, Joselu Anduezak hitz egin zuen, Gazteria Saileko zinegotziak. Bere esanetan, 2010. urtean gazteengana gerturatzea lortu dute. Gazteak izan dira gainera, Anduezaren ikuspuntutik, zer nahi zuten erabaki dutenak. Horren adibide bezala, Gabonetako programazioa, Disko Jaiak, Gazte lokalak edo Amaroako entsegu lokalak aipatu zituen. Azkenik, gazteen parte-hartzearen ondorioz egingo den *Skate Parka* laster inauguratuko dela azaldu zuen Gazteria Saileko arduradunak.

→ Laburrak

Galtzaundi Irakurle Taldearen bilera, gaur

TOLOSA ▶ Galtzaundi Irakurle Taldea gaur bilduko da 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean. Oraingo honetan, Arantxa Urretabizkaia *3 Mariak* liburua aztertuko dute.

Karai-mi jaialdiaren eskertza erakusketa

ELKARTASUNA ▶ 2010eko ekainaren 16an, Karai-mi jaialdia burutu zen Tolosako Leidor antzokian, Paraguayo umeen aldeko GKE baten alde. Bertan, besteak beste, Alurr, Tolosako udal dantza tailerreko taldea, Jonmagic, Lasa trikitilariak, musikoak... egon ziren. Eskertza moduan, bihar eta etzi erakusketak egongo da Kultur Etxean. Ostiralean 18:00etatik 21:00etara, bideo erakustaldia barne eta larunbatean, 10:00etatik 13:00etara. Erakusketak irekiak gain, bigarren esku-haur liburuen salmenta ere burutuko da.

Refrectarios Kelsen eta Hirukide saritu dituzte

EUSKARA ▶ Ziurtagiaren Elkar-teak bi entitate saritu ditu Bai Euskarari Sarien bigarren edizioan, euskara enpresan txertatzeko helburuarekin aurrera eramandako ekintzengatik. Refractarios Kelsen, Adunako enpresa, errotulazioa, kanpo eta barneko dokumentazioa eta beste hainbat elementu euskaratzen egin duten ahaleginagatik saritu dute. Tolosako Hirukide aldiz, azken urteetan euskararen aldeko apustu nabarmena egin duelako.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Ohitura zaharrak berritzeko asmoz

Eskualdeko hainbat herritan Agate Deuna bezpera ospatuko dute; zenbaitetan bat-batean ariko dira bertsolariak

Erredakzioa

Agate Deuna bezpera ospatuko dute kantuan hainbat herritan bihar. Ohitura zaharrari jarraipena ematen diote urtetik urtera, bai eskoletan, bai herritar taldeek, bai abesbatzek, bai elkarteek... Horietako askok gainera herritarren dei egiten diete santa eskean parte hartzeko

Bertsolariekin ere ateratzen dira zenbait herritan. Alegian, Asteasun eta Leitzan esaterako, bat-batean ariko dira koplak abesten egun horretako ohiko kantuen artean.

Leitzan, gainera, berezitasunik badute. Bertako kultur taldetik azaltzen dutenez, *Agiraagirandoa* abestia dute herrian. Egun ere haurrek badakitela diote eta abesti horixe dela gehien kantatzen dutena. Ondokoa da letra, beraien erara moldatuta:

*Agira agirando aki estamos
cuatro, kantaremos dos,
una limosnita por amor de dios,
gaur egun ona, bihar pazkoa,
etzi ezkontzen da, gure atsoa,
agira magira, kukurruku,
ollarrak ontzik, hautsi ittu,
ak patzeko, dirue beau,
etxe hontan, ollo bi,
batek bestea, diruri,
etxe hontako etxeoandrek,
Ama Birjina diruri!*

Baserriz baserri edo kaleetan zehar, makilen kolpeek, musika doinuek eta abestiek girotzen dute eguna.



Iazko Agate Deuna bezperan, Alegian Txintxarri abesbatza eta Zazpi Astoren Gainean bertso eskolakoak (goian) eta Tolosako Musika Eskolakoak (behean). HITZA

Iazko urtearen balantze «baikorra» egin dute Txintxarri abesbatzakoek

Batzar nagusia egin berri dute kultur elkarteek eta gai nagusia iaz ospatutako 50. urteurrena izan zen

Erredakzioa Alegia

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak urteko batzar nagusia egin berri du. Azken urtean egin dako jardueren balantzea egin zuten bazkideek eta urte berrirako aurreikuspenak aurkeztu zituzten. Helduen abesbatzaren 50. urteurrena izan zen hizpide nagusia. Urteurreneko ekitaldien balantze «baikorra» egin zuten.

Atera duten ondorioetako bat abesbatzak «herriarengana gehiago hurbiltzeko urrats sendoa» eman duela da. Koru musika zenbait sektorearengana hurbiltzea zaila izaten dela azaldu dute eta iaz herritar horiarengana iristea lortu dutela jakinarazi dute. «Ekitaldietako asko kalean edo plazan egin dira eta horrek ere asko erraztu du herritarrekin hartu-eman», azaldu dute.

Herritarren eta herriko erakundearen parte-hartzea abesbatzaren urteurrenean «aktiboa izan da», eta hori «aberagarrizta» jo du elkarteak. «Adibiderik garbiena ekainaren 5ean herriko Kultur Batzordeak antolatutako *Musikaz blai* eguna» izan da.

Beste taldeekin elkarlana

Abesbatzak ekintza bereziak egin ditu, horietako asko beste talde batzuekin elkarlanean, eta horrek ere «balio erantsia eman dio» abesbatzari. Horren adibide da herriko bertso taldearekin eta talde horretan gidari dabilen Felix Irazustabarrenarekin izandako elkarlana, diote elkarteek.

Goi mailako koru musika herri-ekartzeko helburua bete zela azaldu dute, Donostiako Orfeoia-rena bezalako emanaldiekin. Egin diren ekintza guztiak oso jendetsuak izan dira eta Txintxarri Egunekoa nabarmendu dute.

Abesbatzan adin desberdinak ordezkaturik daude, eta hori «talde osasuntsu baten adierazle» jo dute kideek. Bide batez, kantagintzak eta zehazki koru musikak gaur egun gizartearen eta herriaren duen tokia aztertzen zuten eta hausnarketarako bidea zabaltzen dute. Koru musikaren barruan errepertorio berriak lantzeko helburuarekin jarraituko du abesbatzak, tradiziozko herri musika lantzearekin batera. Kaleko presentzia indartu edo koru formatu berrietara egokitu nahi dute.

↓ Egitaraua

ALBIZTUR

■ **09:30.** Eskolako haurrak, gurasoak eta irakasleak kantuan aterako dira. Ugarte inguruan hasi eta plazaraino joango dira.

ALEGIA

■ **11:45.** Eskolakoak plazan ibiluko dira koplak kantatzeko.
■ **19:00.** Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzak eta Zazpi Astoren Gainean Bertso Taldea santa eskean kalean kantari ibiliko dira, Larraitz auzotik hasita. Herritar guztiei dei egiten diete eurekin batera santa eskean ibil daitezen. Abesbatzakoek betiko doinua kantatuko dute herritarrekin batera eta bertsolariek koplak eta bertsoak botako dituzte bat batean.

ANOETA

■ **15:30.** Herritar talde batek antolatuta plazan elkartuko dira

eta handik baserrietara joango dira santa eskean. Baserrietako ibilbidea amaituta, 18:00etan plazan elkartuko dira berriz, kalez kale ibiltzeko. Herritar guztiei dei egiten diete santa eskean parte hartzera.

ASTEASU

■ **15:30.** Herriko plazan elkartuko dira. Bertsolariak ere izango dituzte: Beñat Lizaso azpeitiarra, Aritz Mujika asteasuarra eta Ugaitz Mendizabal zizulkildarra. Biltzen den dirua euskal preso eta iheslariei laguntzeko emango da.

IBARRA

■ **17:45.** Anbulatorioaren aurrean elkartuko dira, Izaskunera kotxeetan igotzeko. Anbulatorioa azaltzen ez dena 18:15erako Izaskunera igo dadila (jaketxe aurreko aparkalekura). Bestalde, gaur entsegua egingo

dute 20:00etan Alurren bulegoetan (elizaren ondoan).

IKAZTEGIETA

■ **14:30.** Herriko emakumeak Toki-Alaitik aterako dira. Bigarren deialdian, 15:50an, eskolaren aurrean bilduko dira gero baserriz-baserri ibiltzeko. Herri-gunetik ere pasatzen dira. Eguna sagardotegian bukatuko dute.

LEITZA

■ **18:00.** Plazatik abiatuta herriaren barrena koplak kantuan ibiliko dira. Bertako musikarien eta bertsolarien laguntzarekin buelta egindakoan, Karrapean mokadu jatea ere izanen da.

TOLOSA

■ **17:30.** Musika eskolatik haurren abesbatza eta akordeo taldea aterako dira.

■ **19:00.** Ero-Etxe elkartetik aterako dira herriko kaleetan zehar kantuan aritzeko.

■ **19:30.** Lizardi elkarteok beraien egoitzatik aterako dira herriko kaleetan zehar kantuan aritzeko.

VILLABONA

■ **15:00.** Jesusen Bihotza ikastolatik LH6 eta DBH1 eta 2ko ikasleak kantari aterako dira.
■ **19:00.** Eresargi abesbatzako kideak eta nahi duten herritar guztiak kultur etxetik aterako dira kaleetan kantari aritzeko.

ZIZURKIL

■ **16:45.** San Millan eskolako haur eta gurasoak kantari aterako dira plazatik. Auzo eta kaletatik ibiliko dira eta ibilbidea 20:00ak aldera bukatuko dute afari-merienda egiteko. Biltzen duten dirua El Salvadorreko El Barrial auzora bideratuko dute.

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

samanie o
www.samanieo-tolosa.com
www23@agoraherriak.net

ORDEZ TOLOSA
www.ortoz.net
www33@agoraherriak.net

■ Haurerakia (0-3 urte Plaza Berria)
■ Haur eta Larren Heziketa (3-6 urte Txintxarri)

■ Derrigerozio Bigarren Heziketa
■ Batxilergoa

Euskaratik eta Euskaraz

Matrikula epea: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

hirukide
gaiterri
jessitinek
eskolatxoak

KALITATEZKO HEZKUNTZA
TOLOSAN

943 673 948
www.hirukide.org

Logoak: Baim, O, O, O



Iazko Dantza Soka egunean, herriko plazan dantzan. E. EZEIZA

Dantza soka eguneko entseguak, bihartik aurrera

Dantzak aldatu direla eta, entseguetara joatea beharrezkoa izango da. Hilaren 26an ospatuko dute Dantza Soka eguna

Erredakzioa Anoeta

Dantza Soka eguna, hilaren 26ean ospatu dute anoetarrek. Urteetako ohiturari jarraituz, egunaren aurretik entseguak egingo dituzte.

Hilaren 4an eta 11n, axeri dantzaren, fandangoaren eta arin ari-

naren entseguak egingo dituzte. Kiroldegian elkartuko dira eta 19:00etan izango da hizt ordua. Entsegu orokorrak berriz, hilaren 18an eta 24an izango dira. Kasu honetan, 18:30ean elkartuko dira frontoian.

Aurten dantza aldatu dela jakinarazi nahi izan dute antolatzaileek eta ondorioz, oso garrantzitsua izango da entsegu orokorretara joatea. Dantza Soka egunean parte hartu nahi duten guztiek, Itzuli tabernan dagoen zerrendan idatzi beharko dute euren izena. Parte hartzaileak, DBH 2tik gorakoak izan beharko dute.

'Pan negro' eta 'Guru, mi villano favorito', Gurean

Erredakzioa Villabona

Villabonako Gurea Zineman asteburu honetan bi film eskainiko dituzte. Alde batetik, *Pan negro* eta bestetik, *Guru, mi villano favorito*.

Larunbatean, 19:30ean edo 22:15ean hasita *Pan negro* eskai-

niko dute. Igandean berriz, 16:30ean, *Guru, mi villano favorito* ikusteko aukera izango da eta 19:30ean, *Pan negro*. Astelehenean, 21:30ean berriz ere *Pan negro* filma izango da.

Hurrengo asteburuan, *Carancho* eta *El pequeño Rey Midas* pelikula eskainiko dituzte.

Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako finalean, Donelutxi eta Donelontxo

Hilaren 12an jokatu da finala Villabonako Behar Zana elkartearen. Dagoeneko sarrerak agortuta daude

Eneritz Maiz Villabona-Aiztondo

Beterriko IV. Bertsolari Txapelketako finala erabakita geratu zen pasa den ostiralean. Asteasuko Aitz-Ondo elkartearen burutu zen bigarren kanporaketa. Bertan, mutilen txanda izan zen; Jon Martin, Iñigo Izagirre eta Iñaki Gururutxagak osatutako Doneztebe izeneko taldea eta Ander Lizarralde, Jokin Labayen eta Unai Muñoaren Donelontxo izeneko taldeak lehiatu ziren.

Bigarren kanporaketa honetan, 70 lagunek parte hartu zuten. Afalostean, sei bertsolariak lanean jartzeko ardura Jon Zaldúa gai-jartzaileak izan zuen. Agurra kantatzetik hasi eta bukatu bitar-

tean «umorea gainezka» izan zela adierazi dute antolatzaileek.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen txapelketan ohikoa den legez, umoretik jo zuten bi taldeek. Donelontxokoak esaterako, eta behar bezala mozorroturik, umorista aski ezaguna izandako Eugenio kataluniarren imitazio-parodia egin zuten. Penintsulan oso estilo diferenteetan sartu diren kantarien imitazioak ere egin zituzten, Joaquin Sabina edo Manolo Escobarrenak, esaterako. Euskal Herriera etorrira, Epelde eta Larrañaga trikitilariak ere Asteasun izan ziren. Ikusentzuleak guztiz harrrapatu zituzten Donelontxo taldeko hiru bertsolariak. Esku zartaz eta txaloz ongi eskertu zutela adierazi dute antolatzaileek.

Goizeko ordu txikitian bukatu zuten bigarren kanporaketa ere. Kanporaketa guztietan bezala, entzuleek izan zuten bozka emateko aukera. Donelontxo taldeak erraz irabazi zuen. 46 boto jaso zi-

tuzten Lizarralde, Labayen eta Muñoak. Eta aldiz, Martin, Izagirre eta Gururutxagak, 23 botoekin konformatu behar izan zuten. Berraz, Ander Lizarralde, Jokin Labayenek eta Unai Muñoak osaturiko taldea izango da finalean.

Finalerako txartelak ez

Otsailaren 12an, larunbatean, Villabonako Behar-Zana Elkartearen jokatu dute bi taldeek finala. 20:30ean emango zaio afariari hasiera eta afariaren ostean izango da laugarren txapelketa honen finala.

Donelontxo taldearen aurka, hiru emakume ariko dira, Uxue Alberdik, Ainhoa Agirreazaldetik eta Onintza Enbeitak osaturiko Donelutxi taldea, hain zuzen ere.

Finalerako joateko aukerarik ez da izango ordea. Antolatzaileek adierazi dutenez, final hori ikusi eta entzuteko afaritarako txartel guztiak aspaldi agortu ziren.



Asteasun jokatu da kanporaketa, finalerako txartela Donelontxo taldeak eskuratu zuen. HITZA



TXOKOR hitza

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera** pare du

LAGUN ARO GBC
Menorca Basquet
saskibalo partida

Otsailak 6 • Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Tolosaldeko eta Leitzaldeko 19 futbolari ari dira gaur egun 2.B eta 3. mailetako taldeetan, horietako batzuk etxetik urruti eta beste batzuk euskal taldeetan; «oso zaila» ikusten dute goiko mailetara igotzea.

Goi mailako futbolariak

Joxemi Saizar Tolosa

Futbola da errege kirolen artean, baina goi mailara oso futbolari gutxi iristen da, tarteko mailetan gelditzen dira asko eta asko. Eskualdean ditugun Tolosa CF eta Aurrrera KE Ohorezko Mailan ari dira, Gipuzkoan eta Nafarroan, baina hortik goragoko mailetan ere badira eskualdeko jokalaririk batzuk.

Lehen Mailan ari den Xabi Alonso (Real Madriden) eta 2. mailan ari den bere anaia Mikel Alonso (Tenerifen) tolosarrak kenduta beste inor ez da ari maila horietan, aurreko denboraldian Castello taldean aritutako Gari Uranga ibartarra lesio batengatik erretiroa hartu zuenetik.

Hurrengo mailetan, ordea, eskualdeko 19 ordezkaririk aurkitu ditugu, talde bat osatzeko adina, gehienak euskal taldeetan, baina beste batzuk etxetik urruti.

Etxetik urruti

Almansan (Albacete, 3. maila) Imanol Gonzalez atezain billabonatarra (36 urte), Leganesen (Madril, 2.B maila) Mikel Arruabarrena aurrelari tolosarra (27), Guadalajaran (2.B maila) Mikel Saizar atezain ibartarra (28) eta Teruelen (2.B maila) Aimar Sagastibeltza atzelari leitzarra (26) ari dira jokatzeko.

Imanol Gonzalezek Espainiako zelai asko korritu ditu baloiak jasotzen, beteranoa baita. Lasarteko Michelin taldean hasi jubeniletan eta Tolosan sei urte eta Beasainen beste hiru urte egin ondoren, kanpora jo behar izan zuen: Quintanar del Rey (Cuenca), Guijuelo (Salamanca), Villanovense (Badajoz), Mazarron (Murztzia), Nijar (Almeria) eta Eldensen (Alacant) aritu ondoren Almansa (Albacete) taldean ari da gaur egun.

«Gustura ari naiz jokatzeko, baina futbol mundua ez dago batere ondo orain. Urte urte joan behar duzu kalkuluak egiten. Urte pare bat edo geldituko zaizkit eta hemen inguruan gelditzea espero dut, neskalaguna Eldakoa (Alacant) delako», adierazi dio Hitzari. Hainbeste talde pasatuta, diru arazoak ezagutu ditu hainbat taldeetan. Orain ere, 3. mailan izanda eta arratsaldez entrenatzen dutenez, goizetan eskola batean ari da lanean futbol entrenatzaile gisa. Asko zaintzen da eta lesio gutxi izateko zortea izan du. «Ünerik onenak Guijuelon nengoela izan ziren. Orduan 2. mailako Albace-

te interesatu zen nitz. Beasainen ere igoera fasea jokatu genuen hiru aldiz eta Erreala kanporatu genuen Errege Kopan. Villanovensen izan nintzenezan golik gutxi jasotako atezaina izan nintzen eta beti hiru onenen artean izan naiz», eranstean du billabonatarrak.

Mikel Arruabarrenak ere ibilbide luzea egin du. Athletic B-n Fernando Llorentek baino gol gehiago sartu ondoren, Osasuna Promesas, Xerez, Tenerife eta Varsoviako Legian aritu zen Eibarrra itzuli aurretik. Denboraldi honetan Leganes taldean ari da, utzita.

«Poloniako esperientzia ez zen ondo atera. Osasunan aritutako Jan Urbanen bidez joan nintzen, baina ez nintzen egokitu hango bizimodura eta sei hilabetera itzuli egin nintzen», azaldu du. Eibarren aritu ondoren, berriz kanpora ateratzea tokatu zaio, taldeak hala nahi izan zuelako. Baina ez da damutu, denboraldi bikaina ari delako burutzen, aurrelari titular gisa 14 gol sartu ditu jada, bere mailako Espainia osoko talde guztietako gehiena Gorka Azkora birkaitarrarekin batera. Zortea izan duela onartzen du eta Madriden aritzeari ere garrantzia ematen dio. «Lehengoa Fernando Llorente taldekide ohiarekin izan nintzen eta beti bezain jator jarraitzen du», dio. Etorkizuna galdetuta, 1. mailara iristea zaila ikusten du. «Urte ona izatea espero dut eta gero ikusiko da. Nahia-gut du ekaina arte lasai egon. Gainera Eibarrekin kontratua daukat oraindik», eranstean du.

Mikel Saizar Guadalajaran ari da denboraldi honetan, Bilbao Athletic, Real B, Pontevedra eta Leonesan aritu ondoren. Bostgarren urtea da etxetik kanpo eta gogorra egiten omen zaio, horregatik hilero egiten du bisita etxera. Hala ere gustura dago: «Leonesan diru arazoak izan ziren eta orain hobeto nago. Gainera goiko postuetan goaz eta jokatzeko ari naiz», adierazi du. Errealean egin zuten azken urtea gogoratzen du bereziki: «Lehen taldean ordezko gisa aritu nintzen eta Sanserekin igoera fasea jokatu genuen».

Lehen maila «zaila» ikusten du, baina 2. maila igotzea gertu izan duten Pontevedra eta Guadalajaran bezalako taldeetan gustura ari da. Eskualdeko futbolarien artean Arruabarrena bere laguna gorraipatzen du: «Denboraldi ona ari da egiten. Gure multzo berean dago Leganes. Ez zidan golik sartu. Husna berdindu genuen. Gai-



Imanol Gonzalez (Almansa). HITZA



Mikel Arruabarrena (Leganes). HITZA



Mikel Saizar (Guadalajara). HITZA



Aimar Sagastibeltza (Teruel). HITZA



Jon Altuna (Eibar). HITZA



Ander Avellaneda (Lemoa). HITZA



Iñigo Sarasola (Real Union). HITZA



Iker Gabarain (Real Union). HITZA

nera bidali egin zuten, lurrera botatzeagatik area txikian».

Laugarren *erbestertua* Aimar Sagastibeltza dugu. Leitzako Aurrreran hasi, Tolosan zazpi urte egin kadeteetatik 3. mailara, Beasainen urtebete z eta Tarragonako Nastic taldean aritu ondoren, Teruelen ari da orain. «Beasainen igoera fasean Reusen kontra jokatu nuenean bi partida on egin eta handik atera zitzaidan Nastic-era joateko aukera. Pobra Mafumet filialean urtebete ondo egin eta 2. mailan aritu nintzen, baina gutxi jokatu. Krisia aitzaki, ateratzeko eskaintza egin zidaten eta azkenean Teruelen kontratu txukuna lortu nuen, entrenatzaile ezaguna nuen gainera eta gustura nago. Iaz 2.B mailara igotzea lortu genuen eta aurtten titular ari naiz jokatzeko», dio.

«Hasieran ilusio handia izaten duzu, baina gogorra da bizimodu berrira moldatzea. Futbolaren alde txarra ondo ezagutu dut», eranstean du. Etxera itzultzeko gogo badu, baina zaila ikusten du: «Euskal Herrian oso gutxi ordaintzen dute. Hori bai, profesionalagoak dira, sinatutakoa bete egiten dute, ez kanpoko talde batzuetan bezala. Nik alde horretatik zortea izan dut», eranstean du.

Euskal Herriko 2.B mailan

Euskal Herriko 2.B mailan, Eibarren Jon Altuna erdilari ibartarra (30 urte), Real B-n Julen Castañeda (20) eta Aitor Aldalur (19) atzelari tolosarrak, Real Unionen Iñigo Sarasola atzelari billabonatarra (23) eta Iker Gabarain atzelari tolosarra (32) eta Lemoan Ander Avellaneda atzelari tolosarra (26) ari dira.

Jon Altunak ezagutu du kanpoko taldeen ospe txar hori Logroñesen eta Granadan. Jubeniletan Tolosan eta Antiguokon hasi eta Logroñes, Aurrrera Vitorian, Barakaldon, Eibarren eta Granadan jarraitu ondoren, Eibarrera itzuli eta bertan ari da. «Logroñes B taldean hasi nintzen, baina lehen taldean hamar partida jokatu nituen 2. mailan. Diru arazoak izan ziren eta 3. mailara jaitsi zen taldea. Granadan berriz, astero bilerarekin bat izaten zen diruaz. Horrela ezin da ibili. Azkenean nazkatu egiten zara futbolarik. Horregatik erabaki nuen etxera itzultzea», adierazi du. Gustura dago egiten ari diren denboraldietan, lidegoan baito. «Ia egunero entrenatzen dugu, erdi profesionalak gara, baina ez zaizkit urte asko gelditzen. Beste urtebe-

terako fitxa daukat eta kanpora joatearen esperientzia ekonomiki gaizki ateratzen. Magisteritza daukat egina, heziketa fisikoa, eta hortik jo beharko dut etorkizunean», erantsi du.

Ander Avellaneda Lemoan ari da aurten. Real Sociedaden 18 urte arte aritu ondoren Pasaian, Real Unionen, Eibarren eta Beasainen aritu da orain arte. «Gustukoa dut futbola, baina une honetan ez du lehentasunik nire bizitzan, oso zaila delako aurrera ateratzea. Enpresaritza ikasketak ditut eta aurrerantzean horietatik ikusten dut nire bizitza. Futbolearen aurrerako egiteko balio egin behar da, une egokia tokatu eta zortea izan. Urtebetez Lemoan probatzea erabaki dut, esperientzia gisa», azaldu dio Hirzari. Denboraldi onena Eibarren egin zuela uste du, Mendilibar entrenatzaile eta Justo Lillo tolosarra laguntzaile zirela eta Silva, Joseba Llorente... jokalariei. Mailaz igotzeko zorian izan ziren. Beasainen ere igoera fasea jokatu zuten. Bere koadrilako Mikel Arruabarrena eta Mikel Saizar ikusten ditut aukera gehienekin eskualdekoen artean goragoko mailetara iristeko.

Iker Gabarain tolosarrak sei urte daramatza Irungo Real Union taldean, baina aurretik Tolosa, Beasain, Alaves eta Amurrio taldeetan ere aritu da, gehienetan 2.B mailan. «Real Unionekin bigarren Mailara igo ginen urtea izan nuen onena. Gero maila horretan gaizki aritu ginen, beti arituko postuetan. Iaz jaitzi eta orain zaila izango da berri igotzea», esan du. 33 urterekin, aurten izango du azken denboraldia segur aski. «Kanpora joateko aukerak izan nituen, Benidorm, Nastic eta Ponferradina interesatu ziren nitaz, gehiago eskainiz, baina gero ez dakizu ziur kobratuko duzun eta nahiago izan dut hemen gelditu», erantsi du. Bere mailan dauden jokalariek maila badutela dio, adibidez bere taldekide Inigo Sarasolak 1. mailakoekin entrenatzen urteak egin dituela gogorarazten du, baina goi mailan jokatzera iristeko «zortea» behar dela ziurtatzen du.

Inigo Sarasola billabonatarra ere Real Union-en ari da aurten, Realak utzita, 13 urterekin hasi eta iaz arte Real Sociedaden aritu ondoren. Elkarrizketatu ditugun 19 futbolariaren artean 1. mailan jokatu duen bakarra da, aurreko denboraldian lau partida. «Irunen gustura ari naiz, igoera fasea lortzea dugu helburu eta hor gabilta. Askotan jokatu dut gainera. Sansen futbol polita egitea zen helburua, baina hemen emaitzek dute lehentasuna. Realera iristea zaila da, konpententzia handia dagoelako. Urtea ondo bete nahi dut», dio.

Julen Castañeda atzelaria Real B-n (Sanse) ari da jokatzeko. 11 urterekin joan zen hara, Laskorain

taldetik zuzenean eta bederatziko urte daramatza. Azkenaldian titularra da eta talde gaztea izanik igoera zaila ikusten du. «Pertsonalki, lan egin eta pixkanaka goraka joan nahi nuke. Hemen ez badago tokirik, ez zait axola kanpora joatea», adierazi du.

Aitor Aldalur Tolosatik Realeira joan zen infantiletan eta bertan ari da, aurten lehen aldiz Real B-n. «Azkenaldian gaizki gabilta eta gainera ez dut jokatzeko. Borroka horretan sartzea da helburua. Eta nirea, hor egon eta hobetzea. Askotan hobetu behar dut mailaz igotzeko. Urte pare batean ikusiko dugu», dio.

Hirugarren mailako taldeetan Hirugarren mailan, Beasainen Xabier Jauregi atezain (35 urte) eta Endika Mendizabal erdilari (30) tolosarrak, Inaki Urkizu atzelari berastegierra (20), Oinatz Orue erdilari billabonatarra (27) eta Oier Artola aurrelari ikaztegierra (24), Azpeitiko Lagun Onak taldean Gorka Blanco aurrelari (26) tolosarra eta Iban Agirrezabala atzelari berastegierra (24), Elgoibarren Aitor Imaz atzelari-erdilari zizurkildarra (21) eta Txantrean Xabier Sagastibeltza zentral leitzarra (24) ari dira.

Xabier Jauregik esperientzia luzea pilatu du bere 35 urteetan, talde askotan arituz Tolosan hasi ondoren: Logroñes B, River Ebro, Logroñes, Aurrera Vitoria, Ferrerol, Eibar, Cordoba, Lorca, Real Union eta orain Beasainen. Bederatziko urtez jokatu du 2. mailan. «Iaz arte profesional mailan aritu naiz eta orain gustura nago etxe ondoan. Kanpora ez naiz gehiago joango, bigarren umea ere izan dut eta. Ikasten hasteko asmoa daukat», esan du. Oroitzapenik onenak Eibarren 2000 urtekoak, «bultzada handia» izan zelako, eta Irunen igo zirenekoak ditu.

Endika Mendizabal ere Beasainen ari da berriro bueltan, Tolosan hasi eta Beasain, Sanse, Amurrio, Real Union eta Tolosa taldeak pasatu ondoren. «Arratsaldean entrenatzen dugunez, goizean beste lan bat egiteko aukera daukat eta etxetik gertu entrenatu eta jokatzeko dugunez, gustura nago Beasainen», azaldu du. Bere garai onenak Real Unionen igotzeko zorian egon zirene bi urteak zirela uste du. 2. mailan ez jokatu izana du pena. 32 urterekin, laster ikusten du erretiroa ez du kanpoko taldeetara jo nahi.

Oinatz Oruek bost urte daramatza Beasainen, Villabonan eta Tolosan aritu ondoren. «Taldeen giro ona dugu, inguruko jendea garelako», dio. Etorkizunera begira, master bat ari da egiten eta ingeleza ikasten, «futboleko bizitza zaila delako». Kanpora joateko eskaintzarik ez omen du izan.

Inaki Urkizu ere Beasainen ari da azken bi urte hauetan. Tolosan hasi infantiletan eta jubenil zela 3. mailan aritu zen. Realak deitu



Beasaingo bostak. HITZA



Aitor Aldalur eta Julen Castañeda (Real B). HITZA



Gorka Blanco eta Iban Agirrezabala (Lagun Onak). HITZA



Aitor Imaz (Elgoibar). HITZA



Xabier Sagastibeltza (Txantrea).

zion eta Antiguokon jokatu zuen utzita. «Igoera faserako lau sartzen dira eta hor sartu nahian ari gara, baina zaila izango da. Goiko mailetara igotzea ere oso zaila ikusten dut», agertu du.

Oier Artola Tolosa, Idiazabal eta Ordizian aritu da Beasainen joan aurretik. Hau du bigarren urtea. «Azkenaldian titular ari naiz jokatzeko eta zazpi gol sartu ditut. Hobetzea dut helburu eta gorago aritzea nahiko nuke, baina zaila da», azaldu du.

Gorka Blanco Lagun Onak taldean ari da. Tolosan egin zituen urte asko, 11 urtetik 24ra eta iaztik ari da Azpeitian. «Titularra naiz eta goiko postuetan sartzeagatik ari gara borrokatzen, baina zaila da, talde onak daudelako», esan dio Hirzari. Kanpoko eskaintzarik ez du jaso eta goiko mailetan aritzea zaila ikusten du.

Iban Agirrezabala ere Azpeitiko taldean ari da, baina Tolosan hasi zen alebinetan eta 3. mailaraino iritsi zen. «Jaitzi ginen urtean joan nintzen Azpeitira eta hau seigarren urtea da. Ez naiz damutu. Bizkaitik izan dut eskaintza denboraldi honetan, maila berean, baina ez dut onartu», azaldu du.

Aitor Imaz Elgoibarren ari da jokatzeko, nahiz eta azkenaldian lesionatuta egon. Oreka futbol eskolan, Danenan, Villabonan, Antiguokon, Baskonian eta Eibar B-n aritu da aurretik. Maila mantentzea dute helburu. «Kanpotik deiak izan ditut, baina eskaintza seriorik ez. Animatuko nintzateke», dio.

Xabier Sagastibeltza Txantrea talde nafarran ari da. Aurrerari hasi zen futbitoan eta jubenilak bitarte aritu zen, Preferenzen ere jokatu, gero Txantreara pasatu zen, oraindik jubenil zela eta 8. urtea du hau. «Gozatzen ari naiz, goiko postuetan eta mailaz igotzeko asmoz. Normalean jokatu egiten dut gainera», adierazi du. Heziketa fisikoko irakasle da Iruñako ikastetxe batean eta arratsaldez entrenatzen du. «Lana hemen dudenez, ez dut kanpora joateko asmorik», erantsi du.

Zorterik onena denentzat.



12°
7°

GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	14°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Agate Deunaren bezperan abesten ateratzeko entsegua gaur 20:00etan Alurr-en bulegoan.
- **Villabona.** Eresargi abesbatzaren Agate Deunaren bezperan kantuan ateratzeko entsegua gaur 19:30ean kultur etxean.
- **Leitza.** Moarraztaileen Nazioarteko I. Jardunaldia gaurtik larunbata bitarte. Gaur 11:00etan emango diete hasiera eta 11:30ean Gerard Passolaren hitzaldia izango da. 14:30ean bi haritz kimatuko dituzte. 19:00etan jarraituko dute lana-ekin eta afaldu eta gero antzina teknika hauen inguruko dokumentala eskainiko dute.
- **Tolosa.** Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia gaur 17:30ean kultur etxean.
- **Tolosa.** Aranzadi elkartearen laguntzarekin antolatutako *Tolosa. Historia eta Oroimena*. 1936-1945 jardunaldien baitan Miren Llonak genero ikuspegitik kontatuko du Espainiako gerra gaur 19:30ean udaletxean.
- **Ibarra.** AHT Gelditu! Elkarlanak deituta elkarretaratzea 08:30ean udaletxe aurrean.
- **Hernalde.** AHT Gelditu! Elkarlanak deituta elkarretaratzea 11:00etan udaletxe aurrean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



IRITSI DA EZTARRIA BABESTEKO EGUNA

Atzo hasi ziren San Blas auzoko jaiak. Txupinazoa arratsalde bota zuten eta ondoren Disko Festa izan zen. Gaurkoa da, hala ere, San Blas Eguna, eztarria babesteko kordel bedeinkatua jartzeko eguna, hain zuzen. Kordela lepoan zintzilikatu eta 10 egunez eraman behar omen da, baina eztarriko arazorik izan nahi ez badugu, 10 egun ho-

riek pasatutakoan, kordela erre behar dela dio ohiturak. Kordelarekin batera San Blas opilak ere ezin falta, larunbata bitarte erosi ahal izango direlarik Tolosan. Gaurkoan 11:00etan izango dute meza nagusia auzoan, 12:30ean toka lehiaketa izango da eta 18:30etik 21:30era trikitixa doinuak izango dira Elustondo anai-arrebekin. A. IMAZ

Agurrak



Urte askoan!
Tere Albizu (Tolosa). Gaur urteak. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>